

## Itziar Nazabal Vigoko Nazioarteko Ferian

Atzo zabaldu zituen bere ateak Vigoko Puro Arte 2006, nazioarteko arte feriak. Astelehenera bitartean Vigoko Institutu Ferialean mundu guztiko 100 galería inguruk haien artistak aurkeztu eta ezagutzera emanen dituzte. Halakb bilkuretan ohi den bezalala, margolariak enpresa, erakunde eta museotako arduradunekin harremanetan jartzen dirá, baita bildumazaleekin ere. Sendatzen ari delako han egon ezin bada ere, Itziar Nazabalen lanak Vigon izanen dirá.

Altsasuko margolariaren lanak Madrilgo Gaudi galeriak ari da erakusten Galizian. Galeria hori da hain zuzen ere, feria horren antolatzailea eta sustatzailea. Itziarrek akuarela eta tinta txinatararekin Llanca eta, Cordoban egindako margolanak dau ikusgai.

### Aurreko esperientzia

Margolan horiek ere agorrilean Salzburgeko nazioarteko arte azokan izan ziren. Esperientzia hartaz galdetuta Itziarrek adierazi digu "pozik" dagoela. Gehitu duenez, "oalariarekin eta bere artis-



Itziar Nazabal lortian erakutsi zuen kuadro bati begira.

*tekin harremana sakontzeko edo egiteko balio izan zidan. Sortu zaidan aukeraz konturatzeko ere balio izan dit, han ni baino artista helduagoak baitziren. Katalogoan ere agertzen nintzen eta hori ere garrantzitsua da. Pauso handia dela konturatzeko balio izan dit eta aprobetxatu beharra dut".* Itziarrek berak argitu digunez feria bera porrot handia izan ornen zen, antolakuntzak oso gutxi iragarri zuelako eta galeriek apenas saldu omen zutelaz azaldu digu.

### Aurnena begina

Vigokoa eta gero azaroaren BOetik abenduaren 3ra Brescían, Italian, izanen den Europa mailako arte azokan izanen dirá Itziarren margolanak. Abenduan ere Gaudi Galeriak bere artisten erakusketa antolatu du Madrilen. Bitartean Itziar bera bajan dago. Hankako haustura larria sendatu bitartean, ilbeltzeraino, ezin margotu eta ezin klaserik eman dabil.